

Txillardegi

Idazlea

Amerikarrak sustrai bila

■ Ahal dudán neurrian jarraitzen dut *América Indígena* aldizkaria. Ez nehonek ere nahi nukeen neurrian, beraz. Etsi egin behar, ordea, beste arretagune kuitun askotan bezala.

1996an argitaratutako 56. alean, halaz ere, Manfred A. Marx-Neef txiletar ikertzailearen lan mamitsu bat irakurtzeko parada izan dut. Honela deritzo artikuluari: *El drama de las identidades perdidas*. Eta bere teoria osokiago ezagutu nahi duenaren zerbitzutan edo, bere lan nagusiaren berri ematen digu: *Desarrollo a Escala Humana*; Edit. Icaria, Barcelona, 1994. Nik oraingo ez irakurria, egia aitortzeko.

Unión Panamericana konpainiako aditu gisa hasi zuen bere karrera. Eta, berak aitortzen duenez, Chiapas-en egindako egonaldian izandu zuen barne-krisia, eta *desarrollo indígena* delakoaren gezurra ulertu.

Gaileen dagoen pentsakerak dexente ikutua zegoen gure autorea. Ikuspegi teknokratikoaren arabera, Ameriketako *indígena* delakoen arazoaren gakoa *desarrollo* kontua omen da. Herri *sub-desarrollatua* izan, ala ez izan. Gainerako guztia *folklorearen* mailakoa zitzaion orduan berari ere, axalekoa, hutsaren hurrena.

Hori dela-ta, *indio* horien onerako, hoberena

Ikuspegi teknokratikoaren arabera, Ameriketako indígena delakoen arazoaren gakoa desarrollo kontua omen da. Herri sub-desarrollatua izan, ala ez izan

akulturazioa: mendebaltar kultura *hispano-americanoa* onartu, bertako sustraiak ukatu, eta aurrera. «*El indio es mejor (para el mismo y para el país) en la medida 'en que es menos indio'*», aitortzen du Max-Neef-ek.

Bidea, mestizajea, hitz batez; Juaristik, Savaterrek, eta gainerako akolitu fidelek esango luketen bezala.

Hortaz, eta berriro ere Max-Neef-en esanak berri-dazten ditugularik: «*había que 'informar' a los indígenas de cuáles eran sus 'verdaderos' problemas... Dado que en nuestro país (Txile, alegia) no hay indígenas, todos eran simplemente chilenos...*» Eta niri horrek behinola Paris-ko gobernuak emandako erantzun hura ekarri dit gogora: «*En France il n'y a pas de problème linguistique; tout le monde parle français...*»

Max-Neef-ek, ordea, herri-nortasunaren ezabaketa dakarren *akulturazioa*, hilketa moduetako

bat dela uste du: «*la privación de identidad es ota manera de morir*». Nortasun-beharra, multzo-identitate beharra, *necesidad humana fundamental*-etako bat delako.

Hain zuzen ere, hona hemen txiletarrak ematen duen giza-behar funtsezko horien ilara: «*La subsistencia, la protección, el afecto, el entendimiento, la participación, el ocio, la creación, la 'identidad' y la libertad, conforman un sistema de necesidades humanas fundamentales*».

«*Solo manteniendo las identidades -dío aurrera-xeago- pueden las personas aspirar a mayores realizaciones*». Eta, beti bide beretik: «*la casi totalidad de las guerras que actualmente aquejan al mundo... son el producto de identidades largamente reprimidas por sistemas hegemónicos y mesiánicos, que ahora tratan de recuperar sus sitialos perdidos*».

Eta hitz hauetaz amaitzen du bere izkribua: «*Cuando observo estos*

nuevos procesos -nazio-nortasunen berreskurapen-prozesuak ditu gogoa-, «*desde Canadá hasta Patagonia -siento una satisfacción inmensa, porque confirmo que no solo tiene sentido; sino que es posible defender el 'ser', en un mundo apabullado por las codicias del 'tener'*».

Artikuluaren bukaeran datorren argazki sailtxoak ongi kokatzen du egilearen kezka non sortu den: Sierra Juárez, Cajamarca, maya-cachichiquez ari den irratien esatarien fotoa, Chiloé-ko Huilliche-tar elkar-teak, zapotekoz kantatzen duen talde baten tresneria, Cacaoperú-ko Lenca-tarren irudi bat, eta abar.

Ohiko *Hispano-América* espainolista eta kolonialistatik at gelditzen den beste Amerika ukatu hori dauka gogoan Max-Neefek. Ramiro de Maeztuk gorapa-tzen zuen *Hispanidad*-etik haratekoa. Bertakoena, inperialismo europarra sarraskiaren poderioz suntsitzen saiatu zena: Norbaitek zehazki *Amerika amerikarra* bataiatu zena.

Guk maite duguna, indioena. Gure zibilizazio hanpurus, yankeezale, eta genozidak oraindik txikitu ez duena. (Hango euskaldunena, nolazpait...)

Eta ez da txarra sasi-pragmatismoen izurritea jasaten dugun une hone-tan Ameriketatik datozki-gun oihartzun desberdin hauek gogoratzea. ■

Mixel Berhokoirigoin



Hauteskunde biharamun...

Abertzaleok hauteskunde arratsetako legeari sumatitu behar badugu, erranez emaitza baikorrak izan ditugula, barna-gotik ikertzeak ere merezi du. Abertzaleen gorakadak beharko du abiaduraz aldatu, zerbait lortzeko, ordu deno... Hala ere, gaurkoaz, zenbait ohar:

– Harritu nauen gauza da Euskal Herriaren Alde zerrendak bere kritika guziak ABren aurka botatzea. Bakoitzak bere lekua egin behar badu, hurbilenik duenaren aurka pusaka arizanez, ez da Euskal Herriaren alde jokatzeko manera ohogarriena!

– Iparraldeko eremuan hiru errealtate desberdin agertzen dira. Xiberua: Hemen, «Eskual-zaleen» arteko katazkek dinamika guziak mintzen ditu; elkarrekin lan egin behar luketenek elkarren etsai segitzen badute, gaizo Xiberuaren geroa iluna izanen da... Benafarroa eta Lapurdi barnekaldea: Abertzaletasuna burua uretik kanpo atxikitzeo heinera heltzen ari da, baina bada oraindik asko egiteko mugimendua segurtatzeko... Kostaldea: Normal ez den hein apalean gelditzen da. Abertzaleentzat, Euskal Herri guzian den eginbidea oraindik beharragoa agertzen da Kostaldean: jendeek bizi dituzten errealtateetan sartzea eta lan egitea; lan gabetia, esklusioa, bizitegiak, droga, eta abar... Eta hor lan egin behar da, ez beti oroitari abertzale bezala egin dela egiten den hori. Jendea aski haundi da nor, non, zer den ikusteko...

– Osoki gizartean sartuz, abertzale mugimendua aterako da podereak behar bada ezarria dion zepotik: Ez ote du podereak, kultura eta hizkuntza nahitara abandonatzen, jakinez abertzaleek ez dutela hori hola uzten ahal, eta beraz berren indar, diru, kemen, denbora guztia sail horretan ezarriko dituzte, sozio-ekonomia alorra libre utuz bestentzat, pentsatzen delarik gainera, boz emailen erreferentzia nagusiak sozio-ekonomian direla.

Kornerra

Mikel Elorza

Arazorik ez

■ Erakunde armatuaren desagertetaz negoziatzen jardun du GRAPOk, presoen kaleratzea izanik puntu inportanteena. Negoziatetako geldirik daude, joan den asteko leherketak etenaren adierazle. Elkarrizketara itzuliko direla pentsatzen da, baina erakunde ahul eta estatua indartsu daudela kontuan harturik ez da guztiz fidatzen. estatuek elkarrizketak bakarrikzketarantz lerratzeo joera baitute (atzo 1.000 egun *missing* egindako Publio Cordonen gaia ez da oztipo; bahitu jarraitzen duenentz, beraz, ez da hipotesi sendoena). Nazionalismo bat egurtzen diharduten Ermuko eta bestelako foroek ez diote gaiari heldu, eta hobe, *estatuaren errendizioa* eta antzeko memelokeriekin prozesua zaputuz bailezakete.

Arazaok ez direla existitzen, sorrazki egin direla dio lagun batek. Erantsiko nuke behin sortuta, arazaok ezin direla desagertarazi, estali baizik. Konpondu egin behar direla, alegia. Hitz egitea bideetako bat da, egokiena normalean. GRAPOrekin, eta...

L A P h I T Z A

